AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5141

563/2011 EBAZPENA, irailaren 26koa, Donostia Ospitaleko zuzendari gerentearena, Antonio Arraiza Armendáriz jauna, berak hala eskatuta, Donostia Ospitaleko zuzendariorde mediko kargutik kentzeko dena.

Donostia Ospitaleko zuzendari gerentearen irailaren 13ko 551/2011 Ebazpenaren bidez, Antonio Arraiza Armendáriz jauna Donostia Ospitaleko zuzendariorde mediko izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak aztertu eta gero, gerentziako zuzendaritza honek hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Antonio Arraiza Armendáriz jauna Donostia Ospitaleko zuzendariorde mediko kargutik kentzea, berak hala eskatuta.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2011ko irailaren 30etik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia-San Sebastián, 2011ko irailaren 26a.

Donostia Ospitaleko zuzendari gerentea,
CARLOS ZULUETA GURIDI.